



Ikasketa kooperatiboa Lehen haziak ereiten

Zertan gabiltzan Ikastolaren eguna
Ikasleen txokoa Ohorezko lau matrikula aurten



jakintzaikastola

agenda

APIRILA

HAUR HEZKUNTZA
Ingeleseko antzerki emanaldia.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Oiaso erromatar museora bisita.
2. maila: Pagosara bisita ogia ikusteko prozesua ikustera.

MAIATZA

HAUR HEZKUNTZA
Maila guztiak: Baratzerako landareak erostera.
Maila guztiak: Udaberriko jaialdia.
3, 4 eta 5 urtekoen emanaldia zaharren egoitzan.
3 urtekoak Abali baserrira.
4 urtekoak herrian zehar dendak ikusten.
5 urtekoak Ekogune baserrira.

LH ETA DBH

Agenda21eko foroa ikastola barruan. Herriko beste ikastetxeekin eta udal ordezkarekin urteroko bilera.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Okorroko parkera bisita Naturaren sekretuak ezagutzera.
2. maila: Oiangura irteera ibilbideko elementu ezberdinak ikustera.
2. maila: Herri Antzokira bisita emanaldietako teknika ezagutzera.
2. maila: Irratsaioaren grabaketa eta emanaldia.
3 eta 4. maila: Xiba topaketak.
3 eta 4. maila: Herri Antzokira bisita.
3 eta 4. maila: Legazpiko Aikurrera bisita.
3 eta 4. maila: Hiru eguneko irteera Zarautzera.
5 eta 6. maila: Bertso emanaldia.
5 eta 6. maila: Hiru eguneko irteera Zarautzera.

EKAINA

MAILA GUZTIAK
Ikastolaren eguna.

HAUR HEZKUNTZA

Maila guztiak: Kurtso amaierako irteera.

LEHEN HEZKUNTZA

1 eta 2 maila: Kurtso bukaerako irteera Eginora eta Nestléizozkien lantegira.

DBH

1. maila: Hiru eguneko irteera Villanañera.
2. maila: Hiru eguneko irteera Otsagabiara.
3. maila: Urdaibaira irteera.
4. maila: Bost eguneko irteera Saloura.



MANU OLANO
Jakintza ikastolako zuzendaria

Motxilarik gabe

Irailetik ekainera, zenbat joan etorri etxetik ikastolarako bidean. Normalean, ibilera astuna suertatzen da astelehen goizetan, eta dezente arinagoa eta alaiagoa ostiral arratsaldetan. Urte osoko joan etorrietan ezinbesteko laguna, edo batzuetan etsaia ere izaten dugu bizkar gainean daramagun motxila. Agian gauza erdiak alferrik izango badira ere, beti puntaraino betetzen dugu gure motxila. Zenbat tresna ez ote dugu sartzen gure motxilan! Esan beharra dago, halere, sarritan, tresna horiek guztiak baino astunagoak suertatzen direla gure barnean emetzen diren kezka, ardura eta larriak.

Ekainaren amaiera iristean, a zer nolako arintasuna sentitzen dugun gure bizkarrean

eta gure buruan. Paregabeko askatasuna eta zoriona nabaritzen dugu gure barnean. Baina zorionez, bizitzak aurrera darrai eta urte osoko motxila albora uzteak ez du esan nahi egin beharreko guztia eginda dagoenik. Ezta ere udako helburu bakarra deskantsatzea denik. Udako sargorian, beste erritmo batean agian, baina agertuko dira aurre egin beharreko beste zereginak. Adibidez, ikastolako ateak ixten dira eta etxeko ateak gehiago zabaltzen dira. Ez legoke gaizki, bakoitzak bere neurrian, etxeko giroa sustatzea. Horretarako baldintza bat da ezinbestekoa, une batzuk behintzat elkarrekin igarotzea, une horietan hitz egitea eta tarteka, ez etengabe noski, patxadaz eztabaidatzea.

Irailean noiz?

Udako opor luzeak aurrean ditugula, urruti sumatzen dugu iraila. Atsedendialdiaren ondotik irailan itzuliko gara eta ondoko taulan ikus dezakezue etapa bakoitza noiz hasiko den.

ETAPA	DATAK	ORDUTEGIA
Haur Hezkuntza	Irailaren 10etik 21era	Goizeko 9etatik 12:30era
	Irailaren 24tik aurrera	Goiz eta arratsaldez
Lehen Hezkuntza	Irailaren 10etik 21era	Goizeko 9etatik 12:30era
	Irailaren 24tik aurrera	Goiz eta arratsaldez
DBH	Irailaren 7an aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 10etik 21era	Goizeko 8:30etatik 14:30era
	Irailaren 24tik aurrera	Goiz eta arratsaldez
DBHO	Irailaren 10ean aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 11tik aurrera	Ordutegi arrunta

SIN LA MOCHILA

¡Cuántos viajes de ida y vuelta se habrán hecho durante el transcurso del curso, camino a la ikastola! ¡Qué pesado suele ser el camino las mañanas de los lunes y qué alegre en las tardes de los viernes! En todos estos trayectos, la mochila es nuestra infalible compañera de camino. A menudo repleta de material innecesario, nada más cabe en ella. ¡La de tesoros que esconde una mochila! Pero las dudas y preocupaciones que nos inquietan en el camino pueden resultar una losa más pesada aún que nuestra compañera...

A finales de junio, el alivio llega, tanto a nuestras espaldas como a nuestras mentes; la satisfacción nos embarga... y la vida sigue! Abandonamos la mochila y descansamos de la tarea, pero no faltarán los quehaceres. Se ha cerrado la puerta de la ikastola, pero se ha abierto la de casa y nos adentramos en el ambiente del hogar.

Septiembre se vislumbra lejos, pero llegará el nuevo curso y retomaremos la mochila, el camino... Os informamos del inicio del curso en cada etapa: EDUCACION INFANTIL: del 10 al 21, 09:00-12:30 y, a partir del 24, mañana y tarde. PRIMARIA: del 10 al 21, 09:00-12:30 y, a partir del 24, mañana y tarde. ESO: presentación el 7, a las 11:00; del 10 al 21, 08:30-14:30 y, a partir del 24, mañana y tarde. BACHILLERATO: presentación el 10 a las 11:00 y, a partir del 11, horario habitual.

IKASTOLAREN EGUNA, DENONTZAKO EGUNA

Ekainaren 9a egun handia izan zen Jakintza ikastolarentzat: ikastolaren eguna ospatu genuen, gure eguna. Nahiz eta denbora igaro den, ez digu oraindik alde egin egun hartako zapore gozoak.

Goizean goiz hasi ginen martxan, batzuk janaria prestatzen, besteak mahaiak antolatzen, hemengoak arboladia dekoratzen, hangoak trasteak ekartzen. Inor ez zegoen geldi.

Ondoren, pailazo emanaldiak alaitu zituen txikiak, beste batzuk altxor bila aritu ziren bitartean. Irakasle zaharrenak, irakasle eta gurasoak probatu nahian, herri kiroletan aritu ziren, futboleak eta batek daki zertan. Irakasle eta guraso batek baino gehiagok gogoratuko zuen bezperako kirol saioa, ajearen kontuak!

Goizari amaiera, elkarrekin eman genion. Gure ohiturari eutsiz, mahaiaren inguruan "juntadizo" egin genuen. Bazen han ze jana eta ze edana! Dena goxoa berriz. Egun ederra pasatu genuen.

Ahaztu gabe, mila eta mila esker parte hartu zenuten guraso guztiei eta bereziki Pottokako Ixone eta Aitorri hainbeste pintxo prestatzen egin zuten lanagatik. Gure eskerrik beroenak!



El 9 de junio fue una jornada importante en Jakintza, ya que se celebró el día de la ikastola. Como todos los años, hubo variedad de actividades: payasos para los pequeños de la casa, En busca del tesoro, partidos de alumnos contra profesores y padres... Maravilloso día que terminó, cómo no, dándole al paladar en la arbolada, entre risas y sudores, con nuevas ideas para desarrollar de cara al año que viene...

IKASKETA KOOPERATIBOA, ELKAR ENTZUN ETA EZAGUTUZ,

Jakintza ikastolan taldeka lan egiteko eredu berri bat jarri da martxan urte honetan: ikasketa kooperatiboa. Eskola inklusiborako bidean pausu bat gehiago eman da, eta aurten esperientzia bat izan dena, datorren ikasturtean DBHn gauzatuko den proiektua izango da.



Ikasle guztien integrazioan sakontzeko, egitasmo berri bat martxan jarri da ikasturte honen hasieran Jakintza Ikastolan. *Ikasteko Kooperatu, Kooperatzen Ikasi (IK-KI)* izeneko planak eskola inklusiboa lortzeko bidean pausuak ematen laguntzen du. Hau da, "ikasle guztiak lan egiteko bidea zabaltzen du", Amaia Ayerra irakaslearen esanetan. Ikasketa

kooperatiboaren inguruko ikastaroak jasotzen aritu da urte honetan zehar, eta teoria hori ikastolan txertatzeko lanetan ari da. Zehazki esanda, DBH3. mailako dibertsifikazio gelan txertatu ditu eskola inklusibo honetako oinarriak, Jokin Lacalle irakaslearekin batera. "Aurten lortu dugun esperientzia oso aberasgarria izan da, eta datorren urtean ere ildo beretik



lan egiten jarraitzea aurreikusten dugu", Ayerraren hitzetan.

Baina zer da ikasketa kooperatiboa? Zertan oinarritzen da? Ikasle guztiek parte hartzen duten ikasketa prozesua da. Taldeka lan egiten dute, "baina ez da ikasleak taldekatu eta lana egin dezatela esatea bakarrik, hori baino sakonagoa da". Orain arte, ikasleak taldeetan elkartzen zirenean, lana elkarren artean banatu, eta "dena eginda zegoenean, zati guztiak elkartzen zituzten". Proposamen berri honekin, lan egiteko modu hori aldatu egiten da. Ikasle bakoitzak bere hausnarketa propioa egiten baitu, eta ondoren bere taldekideekin trukatu. "Erantzun bateratu bat emateko ados jartzen dira. Beraz, iritzi guztiak entzuten dira, eta taldekideen iritziekin osatu egiten dira".

Ikasketa kooperatiboa martxan jartzeko, ordea, irakasleen aldetik hausnarketa eta lanketa berezia eskatzen du, alor ugari lantzen dituelako bere baitan. Zailtasunetako bat taldeak nola antolatu da, Ayerrak zehazten duenez. "Ikasleak ondo ezagutu behar ditugu, nor-norekin jarri eta kohesio eta talde dinamika eman dadin bermatzeko". Behin taldea eginda, lanak nola egin behar diren ikasi eta praktikatu behar da. Horretarako Pere Pujolas adituak proposamen ugari ditu bilduta eta aurten, horietako batzuk probatu dituzte; hala nola: **1-2-4 teknika, arkatzak erdira...** "Horrelako teknikak erabiltzerako garaian, betiko ikasleek hitz egitea saihesten da".

Taldeko funtzionamendu hori ona dela bermatzeko, denen arteko parte hartzea ziurtatu beharra dago. Baita elkarreragina ere. Hau da, ikasle bakoitzak ikus behar du bere esanak kontuan hartzen direla. "Irakasleek esaten

LEHEN HAZIAK EREITEN ESKOLA INKLUSIBOAREN BIDEAN



duguna betetzera ohituta daude, eta eredu honekin, beraien arteko lankidetzara asko bultzatzen da". Ikasketa kooperatiboaren ondorioz, ikasgeletako jarduna "askoz dinamikoagoa" bihurtzen da, eta ikasle guztiak lan baten barneko kide bilakatzen dira. Bakoitzak bere ekarpena egiten du, "eta entzuten ere ikasten dute".

Ikastolako esperientzia

Ikasleentzako lan prozedura horrek dakartzan hobekuntzez jakitun, aurten jarri da martxan estraineko aldiz Jakintza Ikastolan ikasketa kooperatiboaren oinarritutako lehen esperientzia. DBH3ko dibertsifikazio gelako ikasleekin egin du lan Jokin Lacalle irakasleak. "Proiektua egin du lan berak, eta egitura kooperatibo batekin", Ayerraren esanetan. 9 ikaslerekin egin du frogara, eta ikasturte osoan zehar zenbait proiektu garatu dituzte,

"proiektu bakoitzean oinarri ezberdinen inguruko jakintza bereganatu dute horrela".

Lehenengo eta behin, talde kohesioa sendotzeko jardura burutu zuen taldeak, horretarako euren burua eta kideena aurkeztuz bideo bat grabatu zuten. Ball shooter delako proiektua izan zen hurrengoa; kainoi bat diseinatu zuten, eta pilota batek saskibaloiko kanasta batean sartzeko izan beharko lukeen angelua eta indarra kalkulatu behar izan zuten ikasleek, horretarako formula matematiko eta fisikoak erabiliz. Ondoren, Ordiziako azokaren 500. urteurrenaren harira, infografia bat egin zuten ikasleek, "kalean inkestak egin, datuak bildu, historikoki bilduta daudenekin konparaketa egin, eta emaitzak era berritzaile batean aurkeztu dituzte". Azkenik, baratza hidroponiko bat egin dute ikastolan bertan. Horretarako, enpresa bat sortzeko

prozesu guztia ikertu dute, eta proiektua garatzeko bideak nola egin zitezkeen aztertu dute ikasleek. Hori guztia, ikasketa kooperatiboaren bidez. Hau da, taldeka elkartuta, eta proiektuak martxan jartzeko garaian zein pausu eman beharko lirartekeen denen artean adostuz, planifikatuz, eta arazoei irtenbidea denen artean emanez.

Lan egiteko modua honekin, "denon iritzia entzuten da, ez era tradizionalean bezala, batek esaten duena bakarrik kontuan hartuz", Oihane Abeledo ikasleak azaltzen duenez. "Hitz egiteko garaian ere, latsa gutxiago sentitzen dugu, eta egin beharko litzatekeena esaten dugu", Ionela Cocarcaren ustez. Adierazpen horiek argigarriak dira ikasketa kooperatiboak ikasle guztiak integratzeko bidean daukan zeresanean.



erronka hori zuen aurretik, eta lan egiteko modu berriaren bidez, " oraindik ez gara estrategia didaktiko berrietara erabat egokitu, baina hasi gara benetan sinesten lan egiteko modu berri honek aurrekoak baino bide hobea garrantzitsua. Ez da gutxi" .

Maila guztietara hedatzea helburu. Lehen esperientziak horren emaitza onak izan dituela ikusirik, datorren ikasturtean ikasketa kooperatiboaren bidean lan egitea aurreikusten du Ayerrak. Era horretan, DBHko gai ezberdinetan lan egiteko esperientzia horiek ezarriko dituzte. " Gai batzutan horrela egingo dugu lan, beti modu berdinean ikastea azkenerako aspergarria ere bihurtuko daiteke" .

Kurrikularen arabera, konpetentzia batzuk beti landu behar direla gogorarazten du Ayerrak, baina beldurrak alde batera utzi eta gai batzuk ikasketa kooperatiboaren bidez emango dituzte. "Motibazio plusa bilatzen dugu era horretan, eta orain arteko esperientziarekin hori lortu dugu". Beraz, aurtengo ikasketa kooperatiboa esperimendu bat izateko, ikastolako egunerokotasunean txertatuko litzatekeen eredu bezala ikusten du Ayerrak. " Nola orokortu eta sustatu beharko litzatekeen aztertzen ari gara, gure errealitatean zein modutan egokitu daitezkeen" .

Baina eskola inklusiboaren bidean egingo dute lan. Orain arte, laguntza berezia behar zuten ikasleak ohiko klaseetatik atera izan dituzte eurentzako gela berezituak antolatzen. "Datorren urtean, ahal den neurrian ez dugu inor klase arruntetatik aterako, baizik eta bigarren irakasle bat sartuko da gelara", aurreratzen du Ayerrak. Ikasle guztiak proiektu beraren parte sentitu daitezkeen emango dute urrats hori.

Gainera, ikasketa kooperatiboak, bakoitzak bere iritzia eman behar duen heinean, hezkuntza premia berezia duten ikasleek ere, beste kideekin batera lan egiteko aukera ematen du. " Eurek berdin egin beharko dute lan, baina bakoitza bere neurriak. Hau da, norbaitek testu ulermenean gaitasun kaxkarrak baditu, beste nolabaiteko lanak egingo ditu, baina betiere bere aportazioa eginez" , Ayerrak azaltzen duenez.

Aurten izandako esperientziak, beraz, datozen urteetan ikastolan sustraituko den hezkuntza integralari zabalduko dizkio atek.

Eskola inklusiboaren bidean pausu garrantzitsua da DBH 3ko ikasle hauekin eman dena. Lacallek dioenez, " ikasle askok denbora gehiegi pasa dute lanak modu berean egiten, eta normaltasunez hartzen dute ikastea azterketak gaitzite dela, eta azterketak gaitzitzen ez dituen ikasle txarra dela" . Egoera horren aurrean,

aurrekoa 'desikasi', eta ikasketa azterketak gaitzitearekin bakarrik lotuta ez dagoela jakitea garrantzitsua dela uste du Lacallek, eta ulertarazi "benetako ikaskuntza aldagai askoren menpe dagoela, eta interpretazio askotara irekita". Aurtengo lan taldearekin



El aprendizaje cooperativo: sembrando la semilla de la educación inclusiva

Durante el transcurso del curso, la ikastola Jakintza ha dado un nuevo paso hacia la integración de todos los alumnos. Se ha puesto en marcha el plan *Cooperar para Aprender, Aprender a Cooperar (CA-AC)*, es decir, un nuevo modelo de estudio que "ofrece la integración de todos los alumnos, sea cual sea su nivel", explica la profesora Amaia Ayerra. Están recibiendo formación sobre el aprendizaje cooperativo, y esta trabajando en la posibilidad de aplicar este modelo en la ikastola. Así, este año se ha trabajado con este modelo, de la mano del profesor Jokin Lacalle. "La experiencia ha sido muy gratificante, y el próximo año seguiremos trabajando con este modelo de enseñanza", comenta Ayerra.

Pero, ¿qué es el aprendizaje cooperativo? ¿En qué se basa? Es un sistema de aprendizaje donde todos los alumnos trabajan conjuntamente. Para ello, tienen que trabajar en grupo, "pero no sólo se les exige el trabajo en grupo, sino que se trata de un sistema más complejo". Porque, hasta ahora, los alumnos cuando se agrupaban, se repartían el trabajo encomendado entre ellos, "y cuando cada uno realizaba su parte, lo juntaban". En cambio, con el nuevo modelo, el modo de trabajar ha cambiado. Y es que, cada alumno tiene que meditar sobre dicho trabajo, y después lo debaten dentro del grupo. "Tienen que ponerse de acuerdo a la hora de dar una respuesta común. Por lo tanto, los alumnos escuchan las diferentes opiniones dentro del grupo".

A la hora de poner en práctica el nuevo modelo de aprendizaje, los profesores también tienen que analizar y preparar su parte. Por ejemplo, la organización de grupos puede resultar dificultoso, tal y como explica Ayerra: "tienes que conocer bien a los alumnos, para decidir con quién poner a cada uno, y así asegurar una buena dinámica de grupo". Una vez compuestos los grupos, se trabaja con el sistema cooperativo, y para ello existen diferentes técnicas. Por ejemplo, tenemos el sistema llamado 1-2-4. Según este sistema, primero el alumno medita a solas sobre el trabajo a realizar, luego lo debate con un compañero, y por último con todo el grupo a la vez. Por otro lado, se utiliza también la técnica de 'lápices al centro'. Es decir, la técnica donde no se puede escribir nada sin antes haber llegado a un consenso en el grupo. "Utilizando estas técnicas, evitamos que en clase hablen siempre los mismos".

Para el buen funcionamiento del aprendizaje cooperativo, hay que procurar la participación de todos los alumnos, "que cada uno vea que su opinión se toma en cuenta". Los alumnos están acostumbrados a obedecer al profesor, "y con este sistema se intensifica la relación y el trabajo entre los alumnos". De esta manera, la dinámica de clase suele ser más activa, tal y como reconoce Ayerra.

La experiencia de la ikastola

Conscientes de las mejoras que supone este nuevo modelo de aprendizaje cooperativo, la ikastola Jakintza ha puesto en marcha durante este curso una experiencia piloto con los alumnos del 3º de ESO. El profesor Jokin Lacalle ha llevado a cabo la experimentación con la clase de diversificación. "Se ha trabajado por proyectos, y en cada experiencia los alumnos han adquirido diferentes competencias", explica Ayerra. Como primer paso, el grupo realizó un ejercicio de consolidación de grupo. Después, trabajaron en el proyecto de Ball shooter, donde hicieron un cañón para disparar pelotas. De este modo, calcularon el ángulo y la potencia necesaria para poder meter una pelota en una canasta de baloncesto. Además, a raíz del 500 aniversario de la feria de Ordizia, diseñaron una infografía, para la cual "salieron a hacer encuestas a pie de calle". Y como colofón, llevaron a cabo el proyecto de huerto hidropónico, analizando todo el proceso de creación de un empresa, e investigando todos los conceptos esenciales sobre el huerto. Los tres proyectos, como ya hemos mencionado, se desarrollaron con el modelo de aprendizaje cooperativo, y en consecuencia, los alumnos se han enfrentado a los problemas presentados en cada proyecto siempre trabajando en grupo y de manera conjunta.

La alumna Oihane Abeledo asegura que "se escucha las opiniones de cada uno de nosotros, no como en el resto de las asignaturas". Ionela Cocarca también tiene la misma sensación, y por ello "me da menos vergüenza a la hora de dar mi opinión". Declaraciones concluyentes sobre el modo de trabajo que supone el nuevo sistema.

Visto los resultados que esta dando el aprendizaje cooperativo, la ikastola extenderá el nuevo modelo a otros niveles de la ESO, para buscar "esa motivación extra en el alumnado". Pero no se aplicará en todas las asignaturas, "utilizar siempre la misma técnica puede llegar a ser monótono", concluye Ayerra.

IRATI OTAMENDI, LIERNI GARMENDIA, IÑIGO JAUREGI ETA IZARO ROMERO || 2012KO OHOREZKO MATRIKULAK

IKASTEA DIBERTIGARRIA IZAN DAITEKE, ETA ZAILTASUNAK ERRONKA



DBHO 2ko ikasturtea bukatu da. Hemezortzi urte, adin magikoa, erronkaz eta zalantzas bete. Itxaropentsua batzuentzat, arazotsua ere bai, beste hainbatentzat. Norberaren lekua topatu nahian, gehienak unibertsitatera joango dira eta besteak goi-mailako moduluetera. Gaur Irati Otamendi dugu aipagai, bere espediente akademikoarekin Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen Ohorezko Matrikula bereganatu baitu. Hala ere, aurtien beste hiru ikasleek ere matrikularako baldintza bete dute Jakintza Ikastolan: Lierni Garmendia, Iñigo Jauregi eta Izaro Romerok hain zuzen ere.

- Hogeita lau ikasleetatik, lau zarete matrikula jasotzeko baldintzak bete dituzuenak. Portzentaje altua, ala?
- Irati: Ez daukat daturik konparatu eta benetan horrela ote den jakiteko, baina nire ustez handiagoa izan beharko luke portzentaiak. Jendeak garbi eduki behar du zertara doan Batxilergora, eta motibatuta hasi. Horrek asko hobetuko luke ez bakarrik

matrikula kopurua, baita ikasketa giroa eta kalitatea ere.

- Lierni: Altua da, baina ez zait iruditzen horren esanguratsua denik, ikasle on asko badaude baina txarrak ere asko badira, zerbaitek huts egin duenaren seinale litzateke. Gainera, ez dago ikasle on edo txarrik, ikasle

Klaseak aprobetxatu eta etxean lan eginez gero, bezperan ez da 24 ordu ikasi beharrik

Lierni Garmendia

langileak eta horren langileak ez direnak baizik, eta horrek, luzera, bere fruituak dakartza, gure kasuan bezala.

- Izaro: Ez dakit portzentaje altua den ala ez, baina ondoko hirikote honek lortzeak ez nau batere harritzen.

- Iñigo: Bai, egia da. Gainera, kontuan eduki behar da ez garela asko, 20 bat ikasle besterik ez. Beraz, seinale ona da.

- Zerk motibatzen zaituzte hainbeste ikasteko?

- Irati: Ikasteko motibazioa txiki-txikitatik sortzen da, pausoz pauso. Izugarriko garrantzia du inguruak horretara bultzatzeak, etxetik hasiz. Horrela, ikastea ez da zama bezala ikusten, dibertigarria ere izan baitaiteke, eta zailtasunak erronka moduan hartzen dira. Ikasi ahala jakin-mina handitzen doa eta azkenean ikastea zerbait naturala bihurtzen da.

- Lierni: Gaur ez bada bihar egin beharko dela jakiteak, nahiz une askotan "pereza" sartzen zaidan. Esaten da kantitatearen aurretik jarri behar dela kalitatea. Ikasketetan ere berdin. Asteaz zehar dauzkagun klaseak ondo aprobetxatzen badira eta egunean orduren bat emandakoaren eskemak egiten edo ariketak egitera bideratzen bada, ez da eguneko 24 orduak ikasten pasa beharrik azterketaren bezperan. Horrela ere ikasten da, konturatu gabe eskeman daukazun buletak eta "fosforito" koloreak ezagunak egiten zaizkizulako.
- Izaro: Motibazioak ez dira beti

berdinak, batzuetan gaiak gustukoak izaten dira, eta beste batzuetan... Ze erremedio! Gaia menperatuta gainditu nahiak.

- Iñigo: Gaiak berak. Gai batzuk interesatzen zaizkit eta beste asko ezin ditut jasan. Gustatzen zaizuna errazago ikasten da.

- Ospatzeko asmorik bai? Nola?
- Irati: Bai, egun batzuetan atsedean hartuz. Horretarako mendiko haizea baino hobeagorik ez dago.

- Lierni: Orain ez daukat ospatzeko denborarik, Selektibitateko azterketen bueltan gaude, eta gero CPE (Certificate in Proficiency English) azterketa daukat. Baina ondoren uda dator, eta aurten lasai hartuko dut kontua, lehenbizi letretako gelakideekin Berlinera egingo dugun bidaian eta gero lagunok udarako egin ditugun planetan murgilduta. Denbora ez dugu alferrik galduko!

- Izaro: Noski! Aurtengo lanaren ondoren lagunekin ospatzea baino hoberik ez dago. Gainera, Selektibitate pasa ondoren talde bat Berlinera joango gara. Notak ez, baina elkarrekin aritu izana gustura ospatuko dugul!

- Iñigo: Etxean gustura daude eta zorian eman dizkirate. Orain Santiago bidea egitera noa lagun batzuekin.

- Zuen burua *enpollon*-tzat al duzue?
- Irati: *Enpollon* izatea liburuen aurrean orduak eta orduak arrautzak txitatzen pasatzea bada, inondik inola ere ez naiz *enpollona*. Klasean arreata jartzea, etxerako lanak egitea, lan ohiturekin konstantea izatea, lo eta elikadura ohitura egokiak mantentzea... askoz ere eraginkorrakoak izan dira niretzat.
- Lierni: Ez. Ez nintzateke gai izango 4 orduz jarraian begiak liburu batetik aldenitu gabe egoteko! Ez dago miraririk, baina ondo antolatzen jakin

behar da. Zertarako balio digu 4 orduz 4 orri hitzez hitz ikasteak 2 egunera ahaztuko badugu? Hobe kontzeptuak ulertuz ikasi. Ikasle ona izatea ez da egun osoa zure gelan liburuen aurrean harrapatuta egotea, benetan ikastea baizik, eta hori liburuekin bakarrik ez da lortzen, bizitzatik ere ikasi behar da, bidaiatu, hizkuntzak ikasi, mundura irten. Gelan geratze hutsak ez du heziketa osoa bermatzen.

- Izaro: Ez. Emaidza onak lortzeko *enpolloi* baino gehiago bizkorra izan behar dela uste dut eta ikasten ematen den denboran erne egon, aprobe txatu. Hobe gutxi eta erne, asko eta erdi lo baino.

- Iñigo: Hitzaren esanahiaren

Emaitza onak lortzeko, ikasten den denbora ondo aprobe txatu behar da

Izaro Romero

arabera. Ikasketekin arduratsu naizela badiozu horrekin, orduan bai. Baina ikasketek ez didate nire bizitza soziala mugatzen, hori esan nahi baduzu. Kirola egiten dut, lagunekin parrandan ateratzen naiz... Ikasketak ez daude beste gauza hauen gainetik.

- Bi urtez geroztik ikastolan; oroitzen aipagarririk bai?
- Irati: Aipagarriena: haurtzarotik nerabetasunera pasatzea. Arazorik gabeko eta erabat babestutako mundu batetik irten eta erabat katrapilatutako beste batean sartu ginen. Nahiko zailak izan ziren denontzat DBHko azken urteak. Hala ere, oroitzen guztiak, onak edo txarrak izan, oso baliagarriak izango ditut etorkizunean.
- Lierni: Orain burura datorkidan lehena DBH4ko irteera da. Berezia

izan zen, akaso aurreko urtean irteerarik gabe geratu ginelako. Lehen batxilergora begira bi gelen arteko batura suposatzen zuen, beti izan ohi genuen A eta B gelen arteko lehia alde batera utzita.

- Izaro: Egia esan milaka dira oroitzen aipagarriak eta gehienak oso onak. Denetik pasa dugu, baina zerbait azpimarratzekotan, azken urte hauetan gelan egon den adiskidetasuna nabarmenduko nuke; azken batean, hori da betirako gogoan geratuko zaidana, gelako lagunak.

- Iñigo: Bai asko. Agian aipagarriena DBH4ean egin genuen ikasbidaia Saloura.

- Zer aholkatuko zenieke Batxilergoa hasi behar duten ikasleei?

- Irati: Hasierako momentutik izan dezatela garbi non sartu diren. Gainontzeko guztia lan eginez etorriko zaie, euren esku dago.

- Lierni: Hasieratik ondo antolatzea. Badakit beti esaten dena dela, eta nik ez nuen betetzen hasieran, baina egin kasu, ondo antolatu eta modu konstantean egin lan azterketetan lasai ibiltzeko. Bestalde, zein Batxilergo aukeratu ondo ez dakienari zientziak hautatzeko esango nioke, gero letretara pasa nahi izanez gero arazorik ez baitu izango. Ni biologia aldetik hasi nintzen zer nahi nuen ez nekielako, eta orain letretan amaitu dut, eta arazorik gabe.

- Izaro: Lehenengo egunetik irakasleek aholkatuko dien bezalaxe lanak ez uzteko azkeneko unerako. Pixkanaka egiten joanez gero, askoz ere eramangarriagoa gertatuko zaie ikasturtea, batxilergoan ez baitago denbora soberan.

- Iñigo: Gogotsu ekiteko ikasturteari, errazagoa eta gozagarrigoa izango delako. Hobe horrela, gogoz kontra lan egitea baino.

Finalizado el Bachillerato, comienza una nueva etapa. La mayoría de nuestros alumnos irá a la universidad y también hay quien preferirá optar por un ciclo formativo superior. Mención aparte merece Irati Otamendi cuyo magnífico expediente académico se ha llevado la Matrícula de Honor de Jakintza. Tampoco podemos olvidar a los que le han seguido de cerca y optaban junto a ella a dicha matrícula: Lierni Garmendia, Iñigo Jauregi e Izaro Romero.

La motivación para el estudio se despierta en edad muy temprana. El entorno tiene mucha importancia, el hogar (...) A medida que se avanza, se despierta un mayor interés y, al final, el estudio es algo natural (IRATI). No existen alumnos buenos y malos, sino los que son trabajadores y los que no. Eso es lo que, al final, da sus frutos, como es nuestro caso (LIERNI). Los estudios no han mermado mi vida social. Hago deporte, salgo de parranda con los amigos... Los estudios no han estado por encima de todo esto (IÑIGO). Tengo muchísimos recuerdos de mi vida en Jakintza, pero si tuviera que señalar uno, hablaría del estupendo ambiente de amistad que hemos tenido en clase estos últimos años. Es lo que me quedará en el recuerdo, los amigos de clase (IZARRO).

Nos hablan de sus proyectos para después de Selectividad, de ir al monte, de viajar a Berlín, de hacer el camino de Santiago en bici... Les espera un futuro brillante y desde aquí les enviamos nuestro deseo: que tengan suerte en sus estudios y, sobre todo, que sean felices en sus vidas!

HIRU URTEKOAK ABALIN

Udaberri garaiarekin lotuta, Ttanttok baserria ezagutzeko aukera eman die hiru urteko haurrei. Hori aitzaki hartuta, eta beti ere eskura ditugun aukera guztiak aprobetxatuz, oraingo honetan adin honetako guraso batek bere baserria ezagutzeko gonbitea luzatu

zien haurrei eta hala, Abali baserria irteera egin zuten. Modu honetan, haurrak gelan ikusi eta ikasitakoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten eta honez gain naturaz gozatu eta egun pasa ederra egiteko aprobetxatu zuten.



XIBA TOPAKETA



Duela ez asko, asteazken batez, Barandiaran enparantza jolas leku erraldoia bihurtu zen gure 3. eta 4. mailako neska-mutilentzat. Xiba elkarteak deituta joan ginen. Izan ere, Ikastola elkarteak aspalditxo jarri zuen abian ekimen hau eta erabateko planteamendu integrala lortu du.

Gure ikasleentzat zuzendutako topaketa hauen helburu nagusia euskal joko eta jolasetan

aritzuz, euskara eta euskal kultura indartzea da; guztia, giro atsegina eta ludiko batean emanez.

Esan gabe doa, ludikotasuna eta elkarren arteko komunikazioa ezinbestekoa dela gure garapenerako eta honetan asko laguntzen digu jolasak eta jokoak, harremanak sendotzeko tresna ezin hobea baitira.

Ederki pasa zuten gure neska-mutilak eta berri ere prest izango dira jolaserako.

ESKUALDEKO UDALEN FOROAN

7. urtea dugu, Goierriko eskualdeko ikastetxeek Eskolako Agenda 21 programa lantzen dugula. Honi esker, Goierriko neska-mutilek eskualdea osatzen duten udalerrietako kudeaketa ezagutzeko aukera izaten dugu. Ikasturte horietan gai ugari jorratu ditugu eta azkeneko bietan, biodibertsitatearen inguruan aritu gara. Lurralde bateko biodibertsitateak ez



duenez lurren arteko mugarik ezagutzen, aurreko landutako gaiari dagozkien hainbat proposamen udalerrietako mugak gainditzen dituztela ohartu gara. Hori dela eta, Beasain, Lazkao eta Ordiziako Batxilergoko ikasleek eskualde maila mantendu dugu gure azterketan.

EUSKADIKO ORKESTRAREKIN

Goazen kontzertura! Horrelaxe joan ziren gure 5. eta 6. mailako neska-mutilak Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eskaini zigun kontzertura. *Sheherazade eta beste ahots batzuk* izenburuarekin mundu osoan zehar ibilbide liluragarri bat egin genuen.

Gure bidaia Euskal Herrian hasi zen, gero Atlantikoa zeharkatu eta Mexikora alde egin genuen, ondoren beriz Europara salto, Hungariara eta azkenik Arabiara.

Mundu osoan zehar ibili eta bertako musikaz majo gozatu genuen. Oso pozik itzuli ginen etxera.



Con la llegada de la primavera, los niños de tres años han ido al caserío Abali para conocer de cerca lo que han aprendido en las aulas.

Los alumnos de 3º y 4º de Primaria realizaron diferentes deportes rurales, dentro de las actividades organizadas por la asociación Xiba.

Las diferentes escuelas del ámbito de Goierri llevamos 7 años realizando la Agenda 21 Escolar. De esta forma, los alumnos conocen la gestión que realizan los diferentes municipios de la comarca. Este año, tampoco hemos faltado a la cita.

Los alumnos de 5º y 6º de Primaria acudieron al concierto de la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Viajaron por todo el mundo con la obra *Sheherazade eta beste ahots batzuk*.

Ikusmen ona, bai garrantzitsua!!

Ikusmena ikustea baino zerbait gehiago da, identifikatzea, interpretatzea eta ulertzeko trebetasuna izatea ere bada. Ikusmen desegokiak errendimendu akademikoan arazoa ekar lezake eta, aagian, eskola-porrota.

Optiko-optometristek diotenez, ume dezente dago, diagnostikatu gabeko ikusmen arazoren batekin, nahiz eta ohiko azterketetan irregulartasun horiek ez antzeman.

Detekzio hau garai z egitearen garrantziaz jabeturik, aurten lehenengo aldiz, lehenengo mailako ikasleei optiko-optometrista batek ikusmenaren froga batzuk pasa dizkie, (begien mugimendua, enfokatzeko trebezia, begien koordinazioa...).

Irakasleoi eta baita gurasooi ere, hitzalditxo bat eskaini zaigu, non arazo horiez hitz egin zaigun eta hainbat ariketa komentatu. Emankorra benetan irakasleok eta orientatzaile-taldekoak jasotako informazioa!

ikasten

Idazleak, gurean

DBH 3ko ikasleek Usue Alberdiren "Aulki jokoak" eleberria irakurri eta gelan landu genuen. Maitatzaren uan, idazlea bera gure artera etortzeko aukera izan genuen. Usuek berehala lortu zuen ikasleak bereganatzea eta giro goxoan, emakumeak idazle edo bertsolaria izateko oraindik gainditu beharreko oztipoez hausnartzeko aukera eman zigun. Ez dugu berehala ahaztuko han entzundakoa! Bejondeizula!

Solasaldi dialogikoen II. topaketa

Barrena Kultur Etxean izandako ekimenean, DBH 3ko ikasleek euren hausnarketa, iradokizun eta emozioak alderatu eta partekatu ahal izan zituzten, gure gonbidapenari erantzun zioten herriko erakunde, aditu eta bertaratu ziren guztiekin.

Liburuaren gaiak adimen urritasuna duten gizakien mundura hurbilketa izan nahi du, eta honekin batera, erabiltzen dugun terminologiaz eta jarreraz hausnarketa bidean jartzen gaitu: "jendea" izatetik "pertsona" izatera bidean, alegia. Pertsonari iseka eta errukia egiteko moduko hitzak edo jarrerak ez direla batera lagungarriak suertatzen ohartarazteko balio izan dugu; adimen urritasuna duen edonor, bere osotasunean baloratzeko eskubideaz kontzientziatu behar dugu, halaber bere balio eta mugekin.

Ordizia hiri hezitzailea

Azkeneko ikasturte hauetan Hiri hezitzaile programazioaren barruan zenbait ekintza burutu ditugu DBH 3ko ikasleekin. Aurten Kultura Garaikideko orduetan frankismo garaiko gizartea aztertu dugu, eta horretarako, Ordiziako Jubilatuen Elkartearekin batera belaunaldi arteko solasaldia egin dugu. Hemen izan genituen garai horretan gaitzetxoak ziren lau horretan euren esperientziak gurekin konpartitzeko. Aldi-aldi entzun zituzten horien bizipenak eta aholkuak. Eskerrik beroenak egun horretan zuen ordu preziatu horietatik batzuk guri eskaintzeagatik.



1978an jaiotakoak Oiangun



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g

tfno. 943 16 05 40

faxa. 943 16 07 90

20240 ORDIZIA

ordizia@ikastola.net



ikastolenelkartea